



## Gainetik nola kendu



**KARMELO LANDA**  
HISTORIALARIA

**D**emokraziak ezin du biderik egin Espainian. Aspaldiko kontua da beratu Estatu espainiarren historian, Estatuua sortzetik gaur arte... Aldaketa eskaini eta moldaketa egin, horra hor alderdi espainiar guztien jokabidea gobernura heldu orduko.

Zerk edo nor tratatzen du bidea? Estatuaren beraren oinarri diren botere eta erakundeek. Begira diezaiozun monarkiaren instituzioari: historiaren hondakina beharko luke monarkiak XXI. mende honetan. Izan ere, inguruko herrietan monarkia kendu eta historiaren zabotegira bota zuten aspaldian: Frantzia, Italia, Grezia eta Portugalen. Espainian, aldiz, Borboien errege-etxeak hiru mende luze daramatza Estatuaren buruan, eta ez haien merituz, hain zuzen. Borboi espainiarrak, beste inon ez bezala, bost aldiz berpiztuak izan dira eta erregetzan berrezarriak, Estatu zaharkituaren zutabe berritu modura: Felipe V lehenik, 1700. urtean; Fernando VII bi aldiz, 1808an eta 1814an; Alfonsito XII 1874an, Lehen Errepublikaren saio laburra akabatzeko asmoz; Juan Carlos I, Francok berak hautatua, 1975ean; eta orain arteko azkena, haren seme Felipe VI, 2014an.

Berriro ere krisian da Borboien monarkiaren instituzio zaharkitua Estatu espainiarrean, eta honekin batera Armada espainiarrak, Guardia Zibila eta justizia sistemak legitimazio zein funtzionamendu krisi endemikoa agertzen dute aspaldian.

PSOE eta Unidas Podemosen koalizio gobernu progresista deituak berriro ere Estatuaren aldaketa demokratikoaren ikurra altxatu du

Francoren erregimenaren ondorengo Estatu espainiarra berritu eta demokratizatu egingo zela zioen dotrina ofizialak. Trantsizioaren garaian, Adolfo Suárez falangista ohiak sortutako alderdi berriek (UCD eta CDS) hartu zuten aldaketa ikurra, baina haien abentura tejerazoa deituan amaitu zen. Ondoren, Felipe Gonzálezen PSOE agertu zen sozialismo espainiarraren izenean, eta aldaketa programan zeramatza errepublika, federalismoa, ez-lerratzea eta NATO bloketik kanpo mantentzea, eta herrien autodeterminazioa. Ikusi, gaurtik begiratu, zertan gelditu zen aldaketa sozialista hura.

Lehen saio sozialista haien lilura zapuztu zenean, felipismoaren gobernu desberdinen gortinen atzean agertu zena ez zen agindutako aldaketa izan, ez: ustelkeria, gerra zikina, erailketak, tortura sistematikoa, kartzela-politika ankerra, ate birakariak eta agintarien aberaste neurrigabea. Horiek guztiek za-

baldu zioten gobernurako bidea eskuin neofrankistari eta PPren gobernuak ustelkerian eta Estatu-praktika ilunetan sakondu besterik ez zuten egin.

Horren guztiaren ondoren eratu da PSOE eta Unidas Podemosen koalizio gobernu progresista deitua. Berriro ere Estatuaren aldaketa demokratikoaren ikurra altxatu du, baina gobernuan urtebete daramala, ez du Estatu krisi larri hau aldaketa demokratikoak bultzatzeko aukera bezala erabili. Aitzitik, krisi larrian dauden instituzioak bere horretan mantentzeri jo du, Borboien alde, Guardia Zibila ilunaren defentsan, edo justizia sistema bere horretan mantenduz. Berriro ikusi dugu Estatu, krisi bakoitzarekin endekatu egiten dela, eta gobernu-alderdiak bere mende hartu.

Herri libre eta zoriontsua izan gaitzek euskaldunok. Faktore ugari dugu aukera horren alde: jendartea, nortasuna, hizkuntza sustraitua, historia, tradizioa, kultura, kokapen geografikoa, lurraldea, baliabideak, hezkuntza, modernitatea, zientzia eta pentsamendua.

Herri libre izan gaitzek, bai, baina ez gainean jarri zaizkigun Estatu espainiar eta Frantziarraren menpe. Estatu independentea antolatu behar dugu Euskal Herrian. Ez da erraza, baina egon badago horretara garamatza biderik. Katalunian une honetan seriotan saiatzen ari diren bide bertsua. Euskal herri-tarrok gu geu ahaldundu. Demokraziaren esparruan kokatu. Herri mugimendu sendoa osatu eta ekin, libre izateko estrategia adostu baten atzetik. ●